



# IKASGELA

Saturnino Telleria, 1  
Legazpi

**2022-2023 ikasturtea** 2 alditan banatzen da:

- 1) urriaren 17tik otsailaren 17ra arte
- 2) martxoaren 6tik uztailaren 7ra arte



► Orduategia

<b>Astelehenetik ostiralera</b>	<b>8:00 – 21:00</b>
<b>Larunbat, igande eta jaiegunetan</b>	<b>9:30 – 20:30</b>

**Urriaren 17tik otsailaren 17ra  
bitarteko ALDIRAKO jarraibideak**

► Txartelak itzultzeko epea:

ikasgela ez duzula erabiliko erabaki bezain pronto eta  
beti ere, **2023ko otsailak 21 baino lehen.**



# IKASGELA

## Saturnino Telleria, 1 Legazpi

### Zer zerbitzu eskaintzen da?

Barkarka ikasteko **24** ikaspostu.  
Wifia eta portatila entxufatu ahal izateko entxufeak.

### Non dago ikasteko gela?

Saturnino Telleria kalea 1ean dago.  
Beheko solairuan gela bat egokitu da, ikasgela bezala.

### Noiz erabil daiteke?

2022ko urriaren 17tik 2023ko otsailaren 17ra arte.

### Zein da ordutegia?

Astelehenetik ostiralera - 8:00- 21:00  
Larunbat, igande eta jaiegunetan - 9:30-20:30

### Nortzuk erabil dezakete ikasgela?

Ziklo formatiboetan edo unibertsitatean ikasten ari diren  
18 urtetik gorako legazpiarrek.

### Talde lana egiteko erabil daiteke?

Ez, bakarka ikasteko gela da.

### Zer egin behar dut ikasgela erabiltzeko?


1. Eskaera orria bete eta irakaskuntza arautua egiten ari zarela egiaztatzen duen agiriarekin batera Udaletxeko web gunearen Egoitza elektronikoa aurkeztu edo Herritarren Arreta Zerbitzuan entregatu.
2. **Ikasgela erabiltzeko jarraibideak.**
3. Ikasgela irekiko duen **txartela** eskuratu.

### Non eta noiz lortu dezaket txartela?

Egindako eskaera onartu ondoren, abisu bat jasoko duzu  
Ikasgelako txartela Kultur Etxeko Herreran jasotzeko.

### Zerbait ordaindu behar da?

Ez, txartela doakoa da.  
Baimendutako epea amaitzean txartela itzuli beharko duzu.  
Baita zerbitzua gehiago erabili behar ez baduzu ere,  
nahiz eta denboraldia amaitu gabe egon.  
Txartela galdu edo itzultzen ez bada, **5 euro** ordaindu beharko duzu.



## **Txartela izanda, ikasteko tokia izango dut?**

Txartelarekin finkatutako egunetan eta ordutegian ikasgela erabiltzeko aukera izango duzu. Toki librerik badago gera zaitzke, bestela ez.

## **Txartela utz diezaioket nire lagunari?**

Ez, txartela pertsonala da. Ezin du beste pertsona batek erabili. Txartelik ez baduzu, ezin duzu ikasgela erabili.

## **Txartela galtzen badut, zer egin behar dut?**

Abisua lehenbailehen eman beharko duzu Kultur Etxeko Harreran sarrera baimena baliogabetzeko. Ondoren **5 euro** ordaindu beharko duzu, eta beste bat atera beharko duzu.

## **Ikasgela erretserba dezaket?**

Ez, ezin da erretserbarik egin. Bertaratzean ikusiko duzu ea tokirik dagoen.

Bertan zaudela, momentu batean irten behar baduzu, gehienez, 30 minututan gorde ahal izango duzu tokia.

Ezingo da tokirik gorde eguerditik (bazkaltzeko ordua) arratsaldera arte, ezta egun batetik bestera ere.

Plaza librerik badago, ikasgela erabiltzea izango duzu, finkatutako egun eta orduetan, ordu-mugarik gabe.

## **Txartela erabiltzen ez badut, zer egin behar dut?**

Txartela itzuli beharko duzu eta Kultur Etxeko Harreran entregatu beharko duzu.

## **Ikasgelako azken erabiltzailea banaiz, zer egin behar dut?**

Ikasgelako argiak itzali eta atea itxi.


## **Txartelekin arazoren bat badago, zer egin behar dut?**

Kultur Etxeko Harrerara joan zaitz eta azaldu iezaezu zein arazo daukazu.



## IKASGELAKO JARRAIBIDEAK

- Ikasgela erabili ahal izateko **ezinbestekoa** da **sarbiderako txartela** pertsonala eta doakoa eskuratzea. Txartelik ez baduzu, ezingo duzu ikasgela erabili.
- **Erabilera guztiak erregistratu** behar dira. Sartu eta gero, **atea itxi behar da**; horrela hurrengo erabiltzaileak bere sarrera erregistratu ahalko du.
- Bakarka ikasteko ikasketa gela da. Beraz, isiltasuna gorde behar da.
- Mugikorrak itzali edo isiltasunen jarri behar dira. Hitz egin behar baduzu, kalera atera zaitetz.
- Ezin da erretserbarik egin. Gehienez, 30 minututan gorde ahal izango da tokia, erabiltzailea bertan ez dagoela.
- Ezingo da tokirik gorde eguerditik (bazkaltzeko ordua) arratsaldera arte, ezta egun batetik bestera ere.
- Plaza librerik badago, ikasketa gela erabiltzea izango da, finkatutako egun eta orduetan, ordu-mugarik gabe.
- Ezin da erre. **Ezin da jan**. Urik baino ezin da edan.



**Ikasgela erabiltzeko jarraibideak**  
betetzen ez badira, Udalak ahalmena izango du,  
behar diren neurriak hartzeko eta sarrera baimena baliogabetzeko.